



Hezkuntza aldatzen, mundua aldatzeko... Hezkuntzako ekintza askatzaile baten alde!

HEGOA Institutuak deituta, 2014. urtean Estatu espainiarrean egingo den Garapenerako Hezkuntzako IV. Biltzarraren Batzorde Antolatzaile gisa eratu gara hainbat lagun eta talde, eta, ildo horretan, hausnarketa eta eztabaida egiteko prozesua jarri nahi dugu abian, biltzarra izan aurretik eta biltzarraren bidez prozesuari buru emateko. Ondotxo dakigu proposamen asko daudela hezkuntzako ekintza askatzaile bat egiteko, era askotako taldeek egin dituztela proposamenak –erakundeek, gizarteko mugimenduek...–, eta hezkuntza formala, ez-formala eta informala dutela aztergai. Horiek horrela, prozesu honetan parte har dezazuen nahiko genuke.

Gaur egungo munduan ohi ez bezalako krisialdia dago.

Egia esan, egoera hori konplexutasunez eta ziurgabetasunez beterik dago, baina, hala ere, ezin ditugu bazter utzi tartean dauden eta jendeak –berezi migratzaileek– pairatzen dituzten arazo laugarri batzuk, adibidez, pobretzeko joera, bazterkeria, gatazkak kudeatzeko ezintasuna eskubideen urraketa. Elite ekonomikoak eta politikoak politika sozialak eta nazioarteko lankidetzarako arloak desegiten ari dira, eta aurrekontuak eta aurrez hartutako konpromisoak hutsaren hurrengo mailetaraino ari dira murrizten. Bien bitartean, beren abantailak handiagotzen ari dira, eta lehen bezala segitzen dute, ondasun globalak metatzeko logikari jarraiki. Era horretan, krisiak sortzen dituzte, bata bestearen atzetik, ez baitute borondaterik ez jakituririk izan krisiak konpontzeko. Duela gutxira arte munduko beste herri batzuek pairatu behar izan dute orain Europara iritsi den egoera hori. Horren guztiaren ondorioz, herrien egoera gero eta ahulagoa da, erasotzen errazagoa.

Ahalik eta onurarik handiena lortzeko logika jartzen dute gauza guztien gaintetik, eta merkatuko legearen nagusitasuna bermatzen dute, gizakien eta ekosistemen beharrezan eta aldaketa klimatikoa bigarren mailan utzita.

Politika neoliberal kapitalista horien ondorioz, gora egin dute bazterketa sozialak eta laneko egonkortasunik ezak. Estatu espainiarrean, gainera, oinarrizko gizarte-zerbitzuak desegiten ari dira, adibidez, mendekotasuna, osasun-laguntza publikoa, adinekoen zaintza, ahalmen-urritasunen baten duten lagunen taldeena, edota baztertuta geratzeko arriskuan dauden taldeena... Horrenbestez, eliteak eta herriak bereizten dituen harresia gero eta garaia da. Aldi berean, zaintzen esparruko krisia larriagotu da, eta horrek eragin handia izan du emakumeen bizitzan.

Boterearen baliabideak erabiliz, demokrazia alderdi formaletara murriztu da, eta eduki politikoak –eraldatzailek– hustu dira hauteskundeetako promesak eta aldatzeko itxaropenak. Horrenbestez, lau urtean behin egiten diren hauteskundeetako deialdiak dira herritartasuna gauzatzeko eta eraginkortasunez parte hartzeko gaur egun dagoen modu bakarra, eta bide horretatik bazter daude migratzaile gehin-gehienak. Maiz, ez dira kontuan hartzen ustelkeria politikoa modu demokratikoan kontrolatzeko eta arlo publikoa kudeatzeko dauden aukerak.

Kultura eta aisialdiko politikak, hedabide handiak eta gizarteratzeko esparruan dauden bestelako eragileak gero eta gehiagotan aritzen dira *hezkuntzako* eragile gisa, baina, eztabaida eta zaintza publikoa bazter utzita, kontzientziak sorgortzea eta errealitatea ezkutatzea edo itxuraldatzea dute helburu.



Hezkuntza aldatzen, mundua aldatzeko... Hezkuntzako ekintza askatzaile baten alde!

Hezkuntza-sistemari gero eta gehiago murrizten ari zaio ahalmen kritikoa. Nabarmenak dira hezkuntza-sistema hondatzen ari dela erakusten duten adierazgarriak: milaka irakasle kaleratu dituzte, eskola publikoan ezinbestekoak diren inbertsioak ez dira egin, hezkuntzako legeria maiz aldatzen da alderdien interesei jarraiki (legeria sei aldiz aldatu da, eta zazpigarren aldaketa abian dago), hezkuntzako erkidegoak eskumenak galdu ditu eta gero eta aukera gutxiago du demokratikoki parte hartzeko, arlo publikoak bigarren mailako zeregina du arlo pribatuarekin erkatuta, administrazioek kontrol burokratikoak izateko duten borondate etengabea, irakasleenganako mesfidantza... Hori guztia oztopo da ikastetxeak era demokratikoan kudeatzeko eta pentsamendu kritikoa garatzeko.

Suntsitutako ikuspegi horri aurre egiteko, gure ustez, ezinbestekoa da **hezkuntzaren ikuspegi askatzailea** sustatzea (arloan formala barne hartuta, baina harantzago joz, gizarteratzeko dauden gune guztiak sartu ahal izateko). Ikuspegi hori esperientziei eta ideiei buruz hausnartzeko era bat izango da, munduari eta haren arazoei begiratzeko modu bat, eta baliagarria izango zaigu mundua hobetu ulertzeko, eta bertan esku hartu ahal izateko. **Hezkuntzako** ikuspegia izango da, prozesu dialektiko bat izango baita, etengabe gauzak aurkitzen eta ezagutzen egoteko. **Askatzailea** izango da, zapalkuntzako egoera batetik askatzeko eta egoera hori aldatzeko xede izango baitu, eta errealitateari begira autodeterminazioko ahalmena berreskuratzea bultzatuko baitu. **Mundu-mailakoa** izango da, arazoak, esparruak eta eskalak elkarri lotuta daudelako. Eta, gure iritziz, ikuspegi horretan, ezinbestez parte hartu behar dugu, era batean ez bada bestean, **gizarteko eragile eta sektore guztiek**, hausnarketa eta praktikaren bidez kontzientziak prestatzen eta errealitateari buruzko pertzepzioa lantzen eragina dugun guztiok.

Hezkuntza publikoa taldeko ondasuna den aldetik babesten badugu, ikuspegi zabalagoa izan behar dugu. Ez da aski ikuspegi formalari eustea; hori aldatu behar dugu, hezkuntzako guneen aniztasuna eta aberastasuna onartzeko eta barne hartzeko. Hortaz, bada, bultzatuko dugun hezkuntzak aukera eman behar du norbanakoek eta gizarteko erkidegoek nagusi den ereduari aurre egiteko eta mundu alternatiboak sortzeko duten boterea indartzeko, hain zuzen, mundu horietan bizitzeko moduko bizitza eta desiratutako etorkizuna eraikitzeko, partekatzeko eta bertan partaidea izateko.

Gure ustez, gizarteko ekintzak egiten dituzten talde, elkarte, eta mugimendu guztiek erronka bat dute aurrean: **hezkuntzako ekintza bat bultzatzea**, inguruan dugun eredu kultural nagusia ulertzeko, mundu alternatiboak irudikatzen eta taldeka mundu horiek eraikitzen hitz emateko prestakuntza emango diguten tresna erabilgarriak, eta kogniziozko eta kontzientziako ahalmenak garatuz.

2013ko
otsaila

